ORIOKO UDALARI ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ARLOAN LAGUNTZA INFORMATIKOA EMATEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU ARRUNTAREN BIDEZ KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA	PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DE SERVICIOS DE ASISTENCIA TÉCNICA INFORMÁTICA PARA LA ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO ORDINARIO
I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA	**I. ASPECTOS GENERALES Y CONFIGURACIÓN DEL CONTRATO**
1. KONTRATUAREN XEDEA Kontratu honen xedea da **Orioko Udalerako administrazio elektronikoaren arloan laguntza informatikoa emateko zerbitzua kontratatzea**. Bereziki, kontratu honen xedea izango da espediente elektronikoak diseinatzen laguntzea eta ESKUA espedienteen kudeatzailea aplikatzeko izapideak egitea. Espediente horiek udal-administrazio elektronikoaren plataforma osatzen duten gainerako aplikazioekin lotuta daude (IZFE, Informatika Zerbitzuen Foru Sozietateak emandako aplikazio informatikoetan oinarrituta). Jarduera hori Informatika Zerbitzuarekin lankidetzan eta hark gainbegiratuta egingo da. CPV kodea: 72600000 Laguntza informatikoko eta aholkularitzako zerbitzuak. Zerbitzua ez dago sortatan zatituta, objektuaren izaerak ez baitu aukerarik ematen lotetan banatzeko (9/2017 Legearen, azaroaren 8koaren, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 99.3 artikulua).	**1. OBJETO DEL CONTRATO** El objeto del presente contrato es la contratación del servicio **de apoyo informático en materia de administración electrónica para el Ayuntamiento de Orio**. Especialmente, será objeto del presente contrato la asistencia en el diseño de expedientes electrónicos e incorporación de trámites en la aplicación de gestor de expedientes ESKUA, que está interrelacionado con el resto de las aplicaciones que conforman la plataforma de administración electrónica municipal (basado en las aplicaciones informáticas suministradas por IZFE, Sociedad Foral de Servicios Informáticos). Dicha actuación se realizará en colaboración con el Servicio de Informática y bajo la supervisión de éste. Código CPV: 72600000 Servicios de apoyo informático y de consultoría. El servicio no se divide en lotes, ya que la naturaleza del objeto no permite la división en lotes (artículo 99.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público).
2. KONTRATATU BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA Preskripzio teknikoen agirian jasota dago zer arrazoirengatik egingo duen administrazio honek agiri honen xede den kontratua.	**2. JUSTIFICACIÓN DE LA NECESIDAD DE CONTRATAR** En el pliego de prescripciones técnicas, constan las razones que han llevado a esta Administración a la celebración del contrato a que se refiere el presente pliego.

3. EXEKUZIO-EPEA

Kontratuaren iraupena **urtebetekoa** izango da, formalizatzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Kontratazio-organoak **beste urtebetez luzatu ahal izango du kontratua**, baldin eta entitate kontratatzaileak horren berri ematen badio enpresa adjudikaziodunari, modu frogagarrian, abian den kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago gutxienez, eta nahitaezkoa izango da adjudikaziodunarentzat.

Adjudikaziodunak kontratua eta hura arautzen duten baldintza-agiriak bete beharko ditu indarrean dagoen bitartean, luzapena barne.

3. PLAZO DE EJECUCION

El plazo de duración del contrato será de **1 año**, contado desde el día siguiente al de la fecha de su formalización.

El contrato **podrá prorrogarse por un año adicional** por el Órgano de Contratación, mediando notificación fehaciente por parte de la entidad contratante a la empresa adjudicataria al respecto, con al menos dos meses de antelación a la finalización del contrato en curso, y será obligatoria para la adjudicataria.

La adjudicataria quedará obligada al cumplimiento del contrato y de los Pliegos que rigen el mismo durante su vigencia, prórroga incluida.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

1.- Hau izango da lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: **15.702,50 euro, gehi BEZari dagozkion 3.297,53 euro. (guztira 19.000,03 BEZ barne)** Aurrekontua hobetu dezakete lizitatzaileek.

Prezioa zehazteko sistema:

	Oinarria	BEZ (%21)	GUZTIRA
Orduko prezioa	57,10 €	11,99 €	69,09 €

Aurreikusten da lizitazioaren helburu diren lanek urtean 275 orduko dedikazioa eskatzen dutela, batez beste 25 ordu astean gutxi gora behera, 11 hilabetetan banatuta.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (hemendik aurrera, SPKL) 100.2 artikuluan zehaztutako ondorioetarako, aurrekontua honela dago banakatuta:

- Langile-kostuak: % 80
- Zuzeneko beste kostu batzuk: % 7
- Zeharkako kostuak:% 7
- Gerta litezkeen beste gastu batzuk: 6 %

4. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN Y VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO

1.- El presupuesto base de licitación será de **15.702,50 €, más 3.297,53 € correspondientes al IVA (total 19.000,03 IVA incluido)**, presupuesto que podrá ser mejorado por los licitadores.

Sistema de determinación del precio:

	Base	IVA(21%)	TOTAL
Precio hora	57,10 €	11,99 €	69,09 €

Se prevé que los trabajos requieren 275 horas de dedicación anual, con una media de 25 horas semanales aproximadamente, distribuidos en 11 meses.

A los efectos previstos en el artículo 100.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (en adelante, también LCSP), el referido presupuesto se desglosa del siguiente modo:

- Costes de personal: 80 %
- Otros costes directos: 7 %
- Costes indirectos: % 7
- Otros eventuales gastos: 6%

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia hau da: 42.149,10 euro (BEZ gabe). Desglosea: - Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: 15.454,55 € - Egin daitezkeen aldaketak (urteko 100 ordu gehiago): 11.240,00 € - Luzapena (urte 1): 15.454,55 GUZTIRA: 42.149,10€, BEZik gabe	2.- El valor estimado del contrato es de: 42.149,10 (sin IVA)- El desglose: - Presupuesto base de licitación: 15.454,55 € - Posibles modificaciones (100 horas anuales): 11.240,00 € - Prórroga (1 año): 15.454,55 TOTAL: 42.149,10 €, excluido IVA
5. FINANTZAKETA Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurreikusita dago urteko aurrekontuaren konturako finantzaketa, 1.0100.226.03.912.10 aurrekontu-aplikazioan. Halaber, aurrekontuen arloko eskumena duen organoak behar diren krediduak ezarriko ditu kontratu honek eragingo dien hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan.	**5. FINANCIACION** Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación con cargo al presupuesto del año en curso, en a la aplicación presupuestaria 1.0100.226.03.912.10. Asimismo, el órgano competente en materia presupuestaria reservará los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.
6. ORDAINKETA-ARAUBIDEA Dagokion faktura aurkeztu eta onesten denean ordainduko da kontratuaren prezioa, honela: **hilero**. Faktura onartu ondoren, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 198 artikuluan jarritako legezko epeetan ordainduko da. Enpresa esleipendunari ez dagozkion arrazoiengatik, kontratuaren helburu diren prestazioak aldi batean betetzen ez badira, dagokion ziurtagirian kendura proportzionalak egingo dira. Alkatetzak 2013ko urriaren 29ko 1472 Dekretuaren bidez onartu zituen Orioko Udalari faktura elektronikoak bidaltzeko baldintza teknikoak. Bertan adierazitakoaren arabera, faktura elektroniko horiek «Facturae» formatua izan behar dute (horri dagokionez, Udalgidaren web-orrian kontsultatu ahal izango da «Facturae» formatuak une bakoitzean erabilgarri dituen bertsioei buruzko informazioa, Interneteko helbide honetan: www.udalgida.net).	**6. RÉGIMEN DE PAGOS** El pago del precio del contrato se realizará contra la presentación y conformidad de la correspondiente factura, y en la siguiente forma: **mensual**. Una vez aprobada la factura, esta será abonada dentro de los plazos legalmente previstos en el artículo 198 de la LCSP Cuando por causas no imputables a la empresa adjudicataria dejaren de efectuarse circunstancialmente las prestaciones objeto del contrato, se verificará la deducción proporcional en la factura correspondiente. Mediante Decreto de Alcaldía nº 1472 de 29 de octubre de 2013 se aprobaron las condiciones técnicas de la remisión de las facturas electrónicas destinadas al Ayuntamiento de Orio. Según lo dispuesto en el mismo, estas facturas electrónicas deberán emitirse en el formato «Facturae» (La información relativa a las versiones del formato «Facturae» admisibles en cada momento se encontrará disponible en la página web de Udalgida, ubicada en la dirección de Internet: www.udalgida.net).

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA Kontratu honetan, ez dira berrikusiko prezioak, SPKLren 103.1 artikuluari jarraituz.	**7. REVISION DE PRECIOS** No procederá la revisión de precios, de conformidad con el artículo 103.1 de la LCSP.
8. BERMEAK Kontratuaren esleipendunak behin betiko bermea jarri behar du, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko. Bermearen zenbatekoa adjudikazioaren zenbatekoaren %5 izango da, BEZa aparte. Berme hori jartzeko epea 17. klausulan aipatutako eskakizunean adierazitakoa izango da. SPKLren 108. artikuluan ezarritako bitartekoetatik edozein erabiliz jarri ahal izango da bermea. Bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke bermea jarri dela egiaztatzeko. Baldintza hori lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez bada, administrazioak ez du adjudikazioa beraren alde emango. Kontratu honen izaera dela eta, ez da aurreikusi berme-epe bat ezartzea. Dena den, ez da behin betiko bermea itzuliko, kontratuaren iraupena amaitu arte eta arduradunak kontratua egoki burutu dela adierazten duen aldeko txostena egin arte.	**8. GARANTIAS** La empresa adjudicataria del contrato, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas, está obligada a constituir una garantía definitiva por la cuantía, equivalente al 5% del importe de adjudicación, excluido el IVA. El plazo para la constitución de la citada garantía será el que se señale en el requerimiento al que se refiere la cláusula 17, y podrá constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108 de la LCSP. La acreditación de su constitución podrá realizarse por medios electrónicos, informáticos o telemáticos. De no cumplirse este requisito por causas imputables al licitador, la Administración no efectuará la adjudicación a su favor. Dada la naturaleza de este contrato, no se prevé el establecimiento de un plazo de garantía. No obstante, no procederá la devolución de la garantía definitiva hasta que no concluya la vigencia del contrato y no se informe por la persona responsable del contrato acerca de la correcta ejecución del mismo.
II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA	**II.- PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR**
9. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA Kontratu hau prozedura ireki sinplifikatu arruntaren bidez adjudikatuko da, SPKLren 159. artikuluko 1. apartatutik 5. apartatura artean ezarritakoari jarraituz; lege horretan eta hura garatzeko arauetan ezarritako jardunei jarraituko zaie adjudikazioa izapidetzean.	**9. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACION** La adjudicación del presente contrato se realizará por procedimiento abierto simplificado ordinario, de acuerdo con lo previsto en el artículo 159, apartados 1 a 5 de la LCSP, en cuya tramitación se seguirán las actuaciones recogidas en la citada Ley y sus normas de desarrollo.
10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA Lizitazio hau bitarteko elektronikoz izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari	**10. LICITACIÓN ELECTRÓNICA** La presente licitación se tramitará por medios electrónicos, de conformidad con las disposiciones de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos

jarraituz. Horrenbestez, udalaren eta lizitatzaileen arteko harremana ere bide horien bitartez egingo da.	del Sector Público. Consecuentemente, la relación del Ayuntamiento con los licitadores se llevará a cabo también por tales medios.
11. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK Espediente honi lotutako jakinarazpen eta komunikazio guztiak bitarteko elektronikoz egingo dira, honako prozesu honi jarraituz: 1) Hartzailearen esku jartzea. 2) Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukiak eskuratzeko bidea. Epeak egun honetatik hasiko dira zenbatzen: jakinarazpena egiten den egunetik (jakinaraztearen xede den egintza egun berean argitaratzen bada kontratatzaile-profilean), edo jakinarazpena jasotzen den egunetik (egintza ez bada egun berean argitaratzen kontratatzaile-profilean). Jakinarazpena eskuragarri jarri eta hamar egun naturalen epean hartzaileak onartu ez badu edo uko egin badio, iraungitzat joko da, eta betetzat joko da jakinarazteko izapidea.	**11. NOTIFICACIONES Y COMUNICACIONES** Todas las notificaciones y comunicaciones relativas a este expediente se realizarán de forma electrónica, siguiendo para ello el siguiente proceso: 1º) Puesta a disposición del destinatario 2º) Acceso al contenido de la notificación o comunicación. Los plazos comenzarán a contar desde el aviso de notificación (si el acto objeto de la notificación se publica el mismo día en el perfil de contratante), o desde la recepción de la notificación (si el acto no se publica el mismo día en el perfil de contratante). Transcurridos diez días naturales desde la puesta a disposición de la notificación, si el destinatario no la acepta o la rechaza, se considerará expirada y se dará por cumplido formalmente el trámite de notificación.
12. KONTRATATZEKO GAITASUNA Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko eta juridikoek, baldin eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala badituzte, ez badaude sartuta SPKLren 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetako batean ere, eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan inskribatuta badaude, SPKLren 159.4.a) artikuluan prozedura ireki sinplifikatu arrunterako eskatzen den bezala. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko, 17. klausulan ezartzen diren bitartekoak erabiliko dira.	**12. APTITUD PARA CONTRATAR** Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar; posean la necesaria solvencia económica, financiera y técnica o profesional; no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 71 de la LCSP; y estén inscritas en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público, o en el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas de Euskadi, tal como se exige, para el procedimiento abierto simplificado ordinario, en el artículo 159.4.a) de la LCSP. La solvencia se acreditará y evaluará de acuerdo con los medios establecidos en la cláusula 17. Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante

Halaber, nork bere izenean edo baimendutako ordezkari baten bitartez har dezakete parte (ordezkariak berariazko ahalorde askietsia eduki behar du). Pertsona juridiko bateko kideren bat aritzen bada haren ordezkari, agiri bidez frogatu beharko du baduela horretarako ahalmena. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere eragiten diote lehen aipatutako kontratatzeko ezgaitasun horiek. Enpresariek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.	otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas. Los empresarios deberán contar, asimismo, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de la actividad o prestación objeto del presente contrato.
13. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK Honako hauek dira kontratua adjudikatzeko oinarri izango diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta haien haztapena: 1) Balio-judizioari lotutako irizpideak: 25 puntu 2) Automatikoki baloratzeko irizpideak: 75 puntu. Irizpide horietatik, honako hauek dira **balio-iritzi baten araberakoak**, eta automatikoki zenbatestekoak baino lehenago balioetsiko dira: **<u>1. Balio-judizio baten arabera kuantifikatu beharreko irizpideak: gehienez ere 25 puntu</u>**. (Adi, dokumentu hau A fitxategian txertatu behar da) Kontratatutako zerbitzuaren deskribapena (25 puntu) 1. Lantaldearen deskribapena: profil teknikoak, esleitutako rolak eta bakoitzak beteko dituen funtzioen deskribapena, dedikazio esklusiboko pertsonak, teknikari erabilgarriak, langileak ordezkatzea absentzien kasuan, arreta-telefonoa, zerbitzu-maila... (5 puntu) 2. Zerbitzuaren antolaketa funtzionalaren deskribapena: zereginen antolaketa eta lan metodologia, Udaleko Informatika Zerbitzuko arduradunarekiko harreman-eredua barne. (4 puntu).	**13. CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN** Los criterios de valoración de las ofertas que han de servir de base para la adjudicación del contrato y la ponderación que se les atribuye son los siguientes: 1) Criterios sujetos a juicio de valor: 25 puntos 2) Criterios de apreciación automática: 75 puntos. De los citados criterios, los **dependientes de un juicio de valor** y que se valorarán previamente a los de apreciación automática, son los siguientes: **<u>1. Criterios cuya cuantificación dependa de un juicio de valor: hasta un máximo de 25 puntos</u>**. (Atención, este documento debe insertarse en el fichero A) Descripción del servicio contratado (25 puntos) 1. Descripción del equipo de trabajo: perfiles técnicos, roles asignados y descripción de las funciones que desempeñará cada uno/a, personas con dedicación exclusiva, técnicos disponibles, sustituciones de personal en caso de ausencias, teléfono de atención, nivel de servicio... (5 puntos) 2. Descripción de la organización funcional del servicio: organización de tareas y metodología de trabajo, incluyendo el modelo de relación con la persona responsable del Servicio de Informática del Ayuntamiento. (4 puntos).

3. Administrazio elektronikoa ezartzeko aholkularitza-zerbitzuaren deskribapena: irismena eta lan-prozedura (10 puntu). 4. Zerbitzuari buruzko hileroko txosten eredu baten proposamena; bilduko diren datuak; datuen analisia eta ondorioetara egokitzeko gaitasuna (2 puntu). 5. Gorabeherak kudeatzeko ticketing-sistema: eskaintzan sartutako produktuaren ezaugarriak, eta eskain daitezkeen merkatuko beste produktu batzuekiko abantailak (2 puntu). 6. Erabilitako datuen eta emandako dokumentazioaren erabilgarritasuna, konfidentzialtasuna eta osotasuna ziurtatzeko hartuko diren neurrien deskribapena (2 puntu). Memoria teknikoaren dokumentuak gehieneko hauetan islatu beharko dira. - Dokumentazioaren gehieneko luzapena (azalak edo aurkibideak kontuan hartu gabe): 16 orrialde (8 orri). Ezarritako muga gainditzen duen edukia ez da baloratuko. - Grafiko, argazki, diagrama eta abar guztiak bereizita erantsiko zaizkio dokumentu idatziari; beraz, horiek ez dira batuko testu idatzietan eskatzen den gehieneko luzera egiaztatzeko. - Irizpide horiekin lotuta aurkezten diren testu idatzi guztiak parametro hauekin idatzi beharko dira: Letra mota eta tamaina: Times New Roman 12 Paperaren tamaina: DIN A4 Lerroartea: 1 Marjinak: Goikoa: 2,5 cm Behekoa: 2 cm Ezkerrekoa: 2,5 cm Eskuina: 1,5 cm Oharra: memoria adierazitako parametroetan aurkezten ez bada, dokumentua ezarritako parametroetara bihurtuko da.	3. Descripción del servicio de asesoramiento para la implantación de la administración electrónica: alcance y procedimiento de trabajo (10 puntos). 4. Propuesta de modelo de informe mensual sobre el servicio; datos recogidos; análisis de datos y capacidad de adaptación a las conclusiones obtenidas de los mismos (2 puntos). 5. Sistema de ticketing para la gestión de incidencias: características del producto incluido en la oferta y ventajas respecto a otros productos del mercado ofertables (2 puntos). 6. Descripción de las medidas que se adoptarán para asegurar la disponibilidad, confidencialidad e integridad de los datos utilizados y de la documentación aportada (2 puntos). Los documentos de la memoria técnica deberán reflejarse en los siguientes máximos. - Extensión máxima de la documentación (sin incluir portadas o índices): 16 páginas (8 páginas). No se valorará el contenido que supere el límite establecido. - Todos los gráficos, fotografías, diagramas, etc., se adjuntarán al documento escrito por separado, por lo que no se sumarán para comprobar la longitud máxima exigida en los textos escritos. - Todos los textos escritos que se presenten relacionados con estos criterios deberán redactarse con los siguientes parámetros: Tipo y tamaño de letra: Times New Roman 12 Tamaño de papel: DIN A4 Interlineado:1 Márgenes: Superior: 2,5 cm Inferior: 2 cm Izquierda: 2,5 cm Derecha: 1,5 cm Nota: si la memoria no se presenta en los parámetros indicados, el documento se convertirá a los parámetros establecidos.

Hurrengo fasera pasatzeko gutxieneko puntuazioa 25 puntu ,13 puntu **<u>2. Automatikoki baloratzeko irizpideak eta horiek baloratzeko erabiliko diren formulak (75 puntu)</u>** honako hauek dira: (Adi, dokumentu hauek B sobrean txertatu behar dira) **Proposamen ekonomikoa: gehienez 25 puntu.** Hasierako prezioa 0 puntukoa izango da. Eskainitako preziorik onena 25 puntukoa izango da. Puntuak kalkulatzeko, formula hau erabiliko da: enpresa bakoitzak eskainitako kontratu-prezioaren eta gehienezko puntu-kopuruaren artean lizitatzaileen artean eskainitako eskaintzarik baxuena. $P = \frac{EO * GP}{BE}$ Non, P baloratzen ari den eskaintzak lortutako puntuazioa da. EO aurkeztutako eskaintza onena da (baxuena) BE baloratu beharreko eskaintza da GP lortu daitekeen gehieneko puntuazioa da **2.2.- Egiaztatutako esperientzia 40** Administrazioan espediente elektronikoak ezartzen eta diseinatzen egiaztatutako esperientzia baloratuko da, ESKUA aplikazioan edo antzeko aplikazioren batean (puntu 1 egiaztatutako esperientzia-hilabete bakoitzeko): 40 puntu, gehienez. Antzeko lanak: antzeko lanak izango dira espediente elektronikoak ezartzeko eta diseinatzeko jarduerak barne hartzen dituzten kontratuak, non patroiak egitea eta horiek abian	Puntuación mínima para pasar a la siguiente fase 25 puntos, 13 puntos **<u>2. Los criterios de valoración automática y las fórmulas que se utilizarán para su valoración (75 puntos)</u>** son los siguientes: (Atención, esta documentación debe incorporarse en el sobre B) **2.1 Proposición económica: Hasta 25 puntos.** El precio inicial será de 0 puntos. El mejor precio ofertado será de 25 puntos. La fórmula para el cálculo de los puntos será la oferta más baja de los licitadores entre el precio del contrato ofertado por cada empresa y el número máximo de puntos. $P = \frac{MO * PMAX}{OV}$ Donde, P es la puntuación obtenida por la oferta que se valora. MO es la mejor oferta presentada (la más baja). OV es la oferta a valorar. PMAX es la puntuación máxima posible. **2.2.- Experiencia acreditada 40** Se valorará la experiencia acreditada en el ámbito de la implantación y diseño de expedientes electrónicos en la administración, ya sea en la aplicación ESKUA u otra aplicación similar (1 punto por cada mes de experiencia acreditada). Hasta 40 puntos. Trabajos similares: se considerarán trabajos similares aquellos contratos que incluyan actividades de implantación y diseño de expedientes electrónicos, con elaboración de patrones y mecanización de procesos para la puesta en marcha de los mismos. Documentación requerida: se deberá aportar un certificado de buena ejecución por parte de la

jartzeko prozesuak mekanizatzea bezalako lanak sartzen diren. Eskatutako dokumentazioa: erakunde kontratatzailearen exekuzio onaren ziurtagiria edo emandako zerbitzuak egiaztatzen dituen agiria aurkeztu beharko da, argi eta garbi adieraziz kontratuaren hasiera- eta amaiera-datak eta garatutako funtzioen deskribapena. Ziurtagiri horiek ezin badira epe barruan aurkeztu, erantzukizunpeko adierazpena onartuko da, eta, bertan, adierazitako datuak adieraziko dira, bai eta ziurtagirien eskabidea dagokion erakundean zein egunetan egin den ere. Edonola ere, kontratua formalizatu aurretik aurkeztu beharko dira ziurtagiriak. **2.3 Berdintasun irizpideak: gehienez 10 puntu** Gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira, kontratua edo jarduera gauzatzen duen plantillari berdintasunaren oinarrizko kontzeptuetan prestakuntza emateko konpromisoagatik. • Urtean 6 orduko prestakuntza eskaintzen dutenei 10 puntu emango zaizkie. • Urtean 3 orduko prestakuntza eskaintzen dutenei 5 puntu emango zaizkie. Irizpidea baloratzeko, gutun-azal honetan enpresa kontratistak **konpromisoa aurkeztu beharko du, kontratua gauzatzeko langile edo langileek** 6 edo 3 orduko prestakuntza izango dutela. Kontratuan irizpide hori betetzen dela egiaztatzeko, gehienez ere kontratua gauzatzen den lehenengo urtea amaitzean, enpresak edo prestatzaileak emandako ziurtagiria(k) aurkeztu behar dira. Ziurtagiri horietan, prestatzailearen beraren titulazioa eta prestakuntza hori agerian uzten duten ikastaroetako edukiak, iraupena eta parte-hartzaileen izen-zerrenda jaso behar dira.	entidad contratante o documento que acredite los servicios prestados, indicando claramente las fechas de inicio y finalización del contrato y una descripción de las funciones desarrolladas. En caso de no poder presentar en plazo dichos certificados, se admitirá declaración responsable indicando los datos señalados, así como la acreditación de la fecha en que se ha cursado la solicitud del/los certificado/s en las entidades correspondientes. En todo caso, los certificados deberán ser aportados antes de la formalización del contrato. **2.3 Criterios de igualdad: hasta 10 puntos** Se valorará hasta un máximo de 10 puntos el compromiso de formar a la plantilla que vaya ejecutar el contrato o actividad en aspectos básico en materia de igualdad. • A quienes impartan formación de 6 horas anuales se les otorgará 10 puntos. • A quienes impartan 3 horas anuales se les otorgará 5 puntos. Para valorar el criterio, la empresa contratista deberá presentar **un compromiso de formación de 6 o 3 horas en la ejecución del contrato**. El cumplimiento de este criterio en el contrato, se acreditará mediante la presentación, a más tardar al finalizar el primer año de ejecución del contrato, de la (s) certificación (s) expedida (s) por la empresa o el formador. Dichas certificaciones deberán incluir la titulación del propio formador y los contenidos, duración y relación nominal de los participantes en los cursos que evidencien dicha formación.
14. KONTRATAZIO-MAHAIA	**14. MESA DE CONTRATACIÓN**

Honako kide hauek osatuko dute kontratazio-mahaia: Presidentea titularra Anuska Esnal Oliden, alkatea. Presidente ordezkoa: Olatz Santamaria Bereziartua, Lehen alkateordea • Mahaikide titularra: Jon Carrera Jauregi, idazkari–kontu-hartzailea • Mahaikide ordezkoa: Matxalen Fondado Eriz, administrazio orokorreko teknikaria • Mahaikide titularra: Xabier Canseco Moral, informatikaria. • Mahaikide ordezkoa: Eider Esnaola Carrera, Administrazio Orokorreko Teknikaria. • Idazkaria: Maider Lopetegi Azkue, Administraria	La Mesa de contratación estará compuesta por los siguientes miembros: Presidente titular: Anuska Esnal Oliden, Alcaldesa. Presidente suplente: Olatz Santamaria Bereziartua, Primer Teniente de Alcalde. • Vocal titular: Jon Carrera Jauregi, Secretario – Interventor • Vocal suplente: Matxalen Fondado Eriz, Técnica de Administración General • Vocal titular: Xabier Canseco Moral, informático. • Vocal suplente: Eider Esnaola Carrera, Técnica de Administración General. • Secretaria: Maider Lopetegi Azkue, Administrativa
15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA KLAUSULA-AGIRIAK ESKURATZEKO BIDEA Lizitazio hau Udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman baitago. Proposamenak bitarteko elektronikoz aurkeztu behar dira, aipatutako plataformaren bidez, **15 egun naturaleko epean**, iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, epearen azken eguneko 14:00ak baino lehen. Honako helbide honen bidez sartu ahal izango da Udalaren kontratatzaile-profilean: www.orio.eus o www.contratacion.euskadi.eus. Toki horretan bertan eskuratu ahal izango dira klausula-agiriak eta dokumentazio osagarria. Lizitatzaileek informazio gehigarria eskatzen badute klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruz, jasotzeko ezarritako muga-eguna baino sei egun lehenago emango zaie informazio gehigarri hori beranduenez, baldin eta	**15. PLAZO Y CARACTERÍSTICAS DE LA PRESENTACION DE PROPOSICIONES, Y ACCESO A LOS PLIEGOS** La presente licitación será anunciada en el perfil de contratante de este Ayuntamiento, alojado en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi. Las proposiciones deberán presentarse electrónicamente a través de la citada Plataforma, durante el plazo de **15 días naturales,** contado a partir del siguiente a aquel en que aparezca el referido anuncio, hasta las 14 horas del último día del plazo señalado. El acceso al perfil de contratante de este Ayuntamiento se podrá llevar a cabo a través de la siguiente dirección: www.orio.eus o www.contratacion.euskadi.eus. En este mismo lugar se podrá tener acceso a los pliegos y a la documentación complementaria. La información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria que, en su caso, soliciten los licitadores será facilitada en el plazo de seis días antes de la fecha límite fijada para la

gutxienez proposamenak jasotzeko muga-eguna baino 12 egun lehenago egin badira eskariak. SPKLren 136.2 eta 136.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeetan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo klausula-agiriari erantsitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, ukitutako hautagaiek eskaintzak egiteko behar duten informazio guztia jasotzeko egokitzat jotzen den adina. Lizitazio-prozedura honetan, ez da onartuko eskaintzarik gorago adierazitako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ezean. Horretarako, ezinbesteko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea. Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, gorabehera hori jakinarazi eta gehienez 24 orduko epea izango du lizitatzaileak fitxategi akastunean zegoen dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Geroago aurkeztutako dokumentu horrek ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako jatorrizko dokumentuaren aldean. Kontratazio-organoak ikusten badu dokumentuak aldaketaren bat izan duela, baztertu egingo da lizitatzailearen eskaintza. Proposamenek administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritakoa bete beharko dute. Proposamena aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo betekizun horiek, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta Kontratazio Mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko datuak kontsultatzeko.	recepción de proposiciones, siempre que la solicitud haya sido realizada al menos 12 días antes del vencimiento del plazo de recepción de las proposiciones señalado anteriormente. De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 136.2 y 3 de la LCSP, cuando la información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria no haya podido ser facilitada en los plazos indicados, así como cuando las ofertas solamente puedan realizarse después de una visita sobre el terreno o previa consulta "in situ" de la documentación adjunta al pliego, el plazo para la recepción de ofertas se prorrogará el tiempo que se considere conveniente para que los candidatos afectados puedan tener conocimiento de toda la información necesaria para formular las ofertas. En el presente procedimiento de licitación no se admitirán ofertas que no sean presentadas a través de los medios electrónicos descritos. A estos efectos, es requisito necesario ser usuario registrado de la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi o de la Plataforma de Contratación del Sector Público. En el caso de que cualquiera de los documentos de una oferta no pueda visualizarse correctamente, se permitirá que, en un plazo máximo de 24 horas desde que se le notifique dicha circunstancia, el licitador presente en formato digital, el documento incluido en el fichero erróneo. El documento presentado posteriormente no podrá sufrir ninguna modificación respecto al original incluido en la oferta. Si el órgano de contratación comprueba que el documento ha sufrido modificaciones, la oferta del licitador no será tenida en cuenta. Las proposiciones deberán ajustarse a lo previsto en este pliego de cláusulas administrativas particulares, y su presentación supone, por parte del licitador, la aceptación incondicionada de dichas cláusulas o condiciones, sin salvedad ni reserva alguna, así como la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos obrantes en el Registro de Licitadores y

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu; dena den, aldaerak onartu ahal izango dira. Halaber, ezin izango du beste aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez inolako proposamenik aurkeztu, baldin eta aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitatzaile horrek izenpetutako proposamenik. Lizitatzaileek konfidentzial izenda dezakete eskaintzak egitean berek emandako informazioaren parte bat, informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoa eta SPKLn adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei nahiz lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruz dauden xedapenak gorabehera. Bereziki, hori egin ahal izango dute beren sekretu tekniko edo komertzialei eta haien alderdi konfidentzialei dagokienez. Udalak ezin izango du informazio hori zabaldu lizitatzailearen baimenik gabe.	Empresas Clasificadas de Euskadi o en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público. Cada licitador no podrá presentar más de una proposición, sin perjuicio de la admisión de variantes. Tampoco podrá suscribir propuesta alguna en unión temporal de empresas si lo ha hecho individualmente, ni figurar en más de una unión temporal. La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las proposiciones suscritas por el licitador. Sin perjuicio de lo dispuesto en la legislación vigente en materia de acceso a la información pública y de las disposiciones de la LCSP relativas a la publicidad de la adjudicación y a la información que debe darse a los candidatos y a los licitadores, estos podrán designar, como confidencial, parte de la información facilitada por ellos al formular las ofertas, en especial con respecto a los secretos técnicos o comerciales y a los aspectos confidenciales de las mismas. El Ayuntamiento no podrá divulgar esta información sin consentimiento del respectivo licitador.
16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA Lizitatzaileek bi fitxategi elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta; klausula honetan adierazitako edukia izan beharko du bakoitzak. "A" FITXATEGI ELEKTRONIKOA. - "GAITASUNA, KAUDIMENA ETA BALIO-IRITZIEN BIDEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK" Agiri hauek izango ditu fitxategiak: a) **Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, I. eranskineko ereduaren araberakoa** Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du betetzen dituela bai administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak, bai kontratua lortzeko klausula-agiri honetan	**16. FORMA DE PRESENTACION DE LAS PROPOSICIONES** Las licitadoras deberán presentar dos archivos electrónicos, firmados por el licitador o persona que lo represente, y con el contenido que, para cada uno de ellos, se especifica en esta cláusula. ARCHIVO ELÉCTRONICO "A". - "CAPACIDAD, SOLVENCIA Y CRITERIOS DE VALORACIÓN MEDIANTE JUICIOS DE VALOR" Este archivo contendrá los siguientes documentos: a) **Declaración responsable del licitador, según el modelo del Anexo I** En esta declaración el licitador indicará que cumple las condiciones establecidas legalmente para contratar con la Administración, así como los requisitos para acceder al contrato establecidos en

ezarritako eskakizunak, bereziki 12. eta 17. klausuletakoak.	este pliego y, en particular, en las cláusulas 12 y 17 del mismo.
Dena den, prozedura ondo burutzen dela bermatzeko, kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak lizitatzaileei eska diezaieke dokumentazioa aurkez dezaten kontratuaren adjudikazioduna izateko klausula-agiri honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, kontratua adjudikatu aurreko edozein unetan.	No obstante, el órgano o la mesa de contratación, en orden a garantizar el buen fin del procedimiento, podrá recabar, en cualquier momento anterior a la adjudicación, que los licitadores aporten documentación acreditativa del cumplimiento de las condiciones referidas en este pliego para ser adjudicatario del contrato.
Adierazpen honetan ere jasoko da **helbide elektronikoa**, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera; helbide horretara igorriko dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak.	En esta declaración también se incluirá una **dirección de correo electrónico** en la que, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Adicional decimoquinta de la LCSP, se realizarán las notificaciones derivadas de este expediente de contratación.
b) Enpresak desgaitasun kuotak betetzen dituela eta Berdintasun Plan bat baduela adierazten duen aitorpena edota hura betetzetik salbuetsita dagoela adierazten duen aitorpena (**II. Eranskina**)	b) Declaración de que la empresa cumple las cuotas de discapacidad y dispone de un Plan de Igualdad o declaración de exención del cumplimiento de estos requisitos (**Anexo II**).
c) Aldi baterako enpresa-elkarte gisa (ABEE) aurkezten diren enpresaburuen kasuan, hura osatzen duten partaideetako bakoitzak aurkeztu beharko du bere erantzukizunpeko adierazpena. Halaber, konpromisoa aurkeztu beharko dute adjudikazioa lortuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko, eta zehaztu beharko dute partaide bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean.	c) En el caso de los empresarios que concurran en unión temporal de empresas (UTE), cada uno de los integrantes deberá aportar su propia Declaración Responsable. Igualmente, deberán aportar el compromiso de constituir formalmente la UTE, caso de resultar adjudicatarios del contrato, debiendo especificar los nombres, circunstancias y participación de cada uno de ellos en dicha UTE.
d) Baldin eta, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.	d) En los casos en que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 75 de la LCSP, el licitador se base en la solvencia y medios de otras entidades, cada una de ellas también deberá presentar una Declaración Responsable.
e) Balio-iritzien araberako irizpideei erreferentzia egiten dieten agiriak, zeinak agiri honetako 13. klausulan adierazita baitaude.	e) Los documentos referidos a los criterios cuya valoración depende de un juicio de valor, señalados en la cláusula 13 de este pliego.

"B" FITXATEGI ELEKTRONIKOA. "AUTOMATIKOKI BALIOESTEKOAK DIREN IRIZPIDEAK" Agiri hauek izango ditu fitxategiak: a) Proposamen ekonomikoa, **III. eranskineko** ereduaren araberakoa. b) Klausula-agiri honetako **13. klausulan** adierazitako automatikoki zenbatestekoak diren gainerako irizpideei buruzkoak **(III: Eranskina)**. Proposamenak aurkezteko epea amaitzean, egiaztatuko da ea betetzen diren legeak eskatutako izaeraren, gaitasunaren eta kaudimenaren betekizunak.	**ARCHIVO ELÉCTRONICO "B". - "CRITERIOS DE VALORACIÓN AUTOMÁTICA"** Este archivo contendrá los siguientes documentos: a) Proposición económica ajustada al modelo incorporado en el **Anexo III**. b) Los referidos a los demás criterios de apreciación automática señalados en la **cláusula 13** de este pliego **(Anexo III).** El momento decisivo para apreciar la concurrencia de los requisitos de personalidad, capacidad y solvencia exigidos en la Ley y en este pliego será el de finalización del plazo de presentación de las proposiciones.
17. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA; ENPRESAK AUKERATZEA, ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako jardun hauek egingo dira: **1. «A» FITXATEGI ELEKTRONIKOA IREKI** Kontratazio-mahaiak, gutxienez 48 ordu lehenago kontratatzaile-profilean argitaratuko den toki, egun eta ordu batean, «A» fitxategia irekiko du elektronikoki, eta egiaztatuko du hartan jasotako dokumentazioa, hala kontratua lortzeko eskakizunak betetzeari dagokiona nola balio-iritzi baten araberako adjudikazio-irizpideei dagokiena. Ekitaldi horren ondoren, mahaiak udalaren zerbitzu teknikoei igorriko die dokumentazioa, irizpide horiek balioets ditzaten. Horri dagokionez, dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, mahaiak sei egun balioduneko epea emango du, gehienez, zuzenketak egiteko, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera (zeinak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen baitu).	**17. APERTURA Y TRATAMIENTO DE LA DOCUMENTACIÓN PRESENTADA, SELECCIÓN DE EMPRESAS Y VALORACIÓN DE OFERTAS** Vencido el plazo de presentación de proposiciones se llevarán a cabo las siguientes actuaciones: **1. APERTURA DEL ARCHIVO ELECTRÓNICO "A"** La Mesa de Contratación, en el lugar, día y hora que se publique en el perfil de contratante, al menos con 48 horas de antelación, llevará a cabo la apertura electrónica del archivo "A" y comprobará la documentación incluida en el mismo, referida al cumplimiento de los requisitos para acceder a este contrato, así como a los criterios de adjudicación que dependen de un juicio de valor. Tras este acto, la Mesa remitirá la documentación a los servicios técnicos municipales para que lleven a cabo la valoración de los referidos criterios. A estos efectos, si resultara precisa la subsanación de errores u omisiones en esta documentación, la Mesa concederá para efectuarla un plazo máximo de seis días hábiles, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 27 del RD 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

2. «B» FITXATEGI ELEKTRONIKOA IREKI, ETA LEHENENGO SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGIN ARTEKO JARDUKETAK «A» fitxategi elektronikoa ireki eta zerbitzu teknikoek balio-iritzi baten araberako adjudikazio-irizpideak balioetsi ondoren, kontratazio-mahaiak «B» fitxategi elektronikoa irekiko du, udalaren kontratatzaile-profilean iragartzen den tokian, egunean eta orduan, eta honako jardun hauek egingo ditu: 1.- Jakinaraziko du balio-iritzi baten araberako adjudikazio-irizpideak balioestearen emaitza. 2.- Lizitatzaile bakoitzaren «B» fitxategi elektronikoa irekiko du, eta haren edukia irakurriko. Ekitaldi horren ondoren, honako jardun hauek egingo ditu mahaiak: 1.- Baztertu egingo ditu klausula-agiriko eskakizunak eta betebeharrak betetzen ez dituzten eskaintzak, halakorik badago. 2.- Zenbateste matematikoko irizpideak balioestea. 3.- Eskaintza bakoitzak guztira lortutako puntuazioa ezarriko du, eta puntuazio handienetik txikienera sailkatuko ditu eskaintzok. 4.- Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen aldeko adjudikazio-proposamena egingo du. Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza nabarmenki baxuegia dela uste izanez gero, 149. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzeagatik, artikulu horretan ezarritako prozedurari jarraituko dio; dena den, ezin izango da izan bost egun baliodun baino luzeagoa izan lizitatzaileak bere eskaintza justifikatzeko duen epea, dagokion komunikazioa igortzen zaionetik. Egindako jardun guztien berri emango da espedientean, aktetan jasoz, nahitaez idatzi beharko baitira aktak.	**2. APERTURA DEL ARCHIVO ELECTRÓNICO "B" Y ACTUACIONES SUBSIGUIENTES HASTA EL REQUERIMIENTO AL PRIMER CLASIFICADO** Tras la apertura del archivo electrónico "A" y la valoración, por los servicios técnicos, de los criterios de adjudicación que dependen de un juicio de valor, la Mesa de Contratación, en el lugar, día y hora que se anuncie en el perfil de contratante del Ayuntamiento, llevará a cabo la apertura del archivo electrónico "B", realizando las siguientes actuaciones: 1.- Dar a conocer el resultado de la valoración de los criterios de adjudicación que dependen de un juicio de valor. 2.- Abrir el archivo electrónico "B" de cada licitador y dar lectura a su contenido. Tras dicho acto, en la misma sesión, la Mesa llevará a cabo las actuaciones siguientes: 1.- Excluir las ofertas que, en su caso, no cumplan los requisitos y exigencias del pliego. 2.- Valorar los criterios de apreciación matemática. 3.- Establecer la puntuación total obtenida por cada oferta y clasificarlas por orden decreciente. 4.- Realizar la propuesta de adjudicación a favor del licitador con mejor puntuación. En el caso de que la oferta del licitador que haya obtenido la mejor puntuación se presuma que es anormalmente baja por darse los supuestos previstos en el artículo 149, la Mesa seguirá el procedimiento previsto en el citado artículo, si bien el plazo máximo para que justifique su oferta el licitador no podrá superar los cinco días hábiles desde el envío de la correspondiente comunicación. De todo lo actuado se dejará constancia en el expediente, en las correspondientes actas que necesariamente deberán extenderse

5.- Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistrora edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialera joko du, eta kontratua adjudikatzeko proposatutako lizitatzailearen datuak egiaztatuko ditu: haren izaera, gaitasuna, kaudimena eta kontratatzeko debekurik ez izatea. 6.- Komunikazio elektronikoaren bidez, kontratua adjudikatzeko proposatutako lizitatzaileari eskatuko dio **zazpi egun balioduneko epean** komunikazioa igortzen zaionetik jarduketa hauek egin ditzan edo dokumentu hauek eman ditzan: a. Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria. b. Lizitatzailearen esku beharrezko diren baliabideak jarriko dituzten erakundeen konpromisoa, hala badagokio, SPKLren 75.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz . (kaudimena eta gaitasuna kanpoko bitartekoekin osatzea). c. Dokumentazio egiaztagarria, kontratuaren egikaritzean erabiltzeko edo atxikitzeko konpromisoa hartu zuen bitartekoak benetan dauzkala egiaztatzeko, SPKLren 76.2 artikuluaren arabera (bitarteko pertsonal eta materialak atxikitzea). d. Hala badagokio, kaudimenari buruzko beste edozein dokumentazio, dagokion lizitatzaile-erregistroan ez badago. Horri dagokionez, gutxieneko kaudimen-eskakizun hauek bete behar dira kontratu hau lortzeko: - Lizitatzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren egiaztagiriak, SPKLren 87. artikuluko ... letran eta 90. artikuluko ... letran ezarritako bitartekoen bidez. Aipatutako bitartekoei dagokienez, enpresek, kontratu honetarako, gutxieneko	5.- Acceder al Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas de Euskadi o al Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público y, en cuanto al licitador propuesto para la adjudicación del contrato, comprobar la veracidad de los datos referidos a la personalidad, la capacidad, la solvencia y la no prohibición para contratar. 6.- Requerir, mediante comunicación electrónica, al licitador propuesto para la adjudicación del contrato, para que, en el **plazo de siete días hábiles** a contar desde el envío de dicha comunicación, realice las actuaciones o aporte los documentos que se señalan a continuación: a. Acreditación de haber constituido la garantía definitiva. b. Aportación, en su caso, del compromiso de las entidades que prestarán los recursos necesarios al licitador, de acuerdo con lo previsto en el artículo 75.2 de la LCSP (integración de la solvencia con medios externos). c. Documentación justificativa, en su caso, de que dispone efectivamente de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato, conforme al artículo 76.2 de la LCSP (adscripción de medios personales y materiales). d. En su caso, cualquier otra documentación, referida a la solvencia, que no esté inscrita en el Registro de Licitadores correspondiente. A este respecto, los requisitos mínimos de solvencia exigibles para acceder a este contrato son los siguientes: - Justificantes de la solvencia económica, financiera y técnica o profesional del licitador, por los medios establecidos en los artículos 87.1 letra a) y 90.1 letra a) de la LCSP. En relación con los medios señalados, los requisitos mínimos de solvencia que deberán reunir las empresas

kaudimen-eskakizun hauek bete beharko dituzte: - Amaitutako azken hiru urteetako **negozio-bolumen** handienaren urteko negozio-bolumena 23.500,00 eurokoa izango da gutxienez. - Azken hiru urteetan egindako **zerbitzu edo lan nagusien zerrenda**, kontratuaren xede diren zerbitzu edo lanen izaera berekoa edo antzekoa duena, baldin eta exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa 10.500,00 eurokoa edo gehiagokoa bada. Kaudimena egiaztatzeaz gain, lizitatzaileek beren eskaintzetan zehaztutako behar adinako baliabide pertsonal eta materialak atxiki beharko dizkiote kontratua egikaritzeari. Behar adinakotzat jotzen dira horri dagokionez preskripzio teknikoen agirian zehaztutakoak. Baliabide horiek kontratuari atxikitzea funtsezko kontratu-betebehartzat joko da; horrenbestez, SPKLren 76.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jo ahal izango da 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako. Hori zuzenean egiaztatuko da, nahiz eta lizitatzaileek klausula honi dagokion erregistro ofizialen baten egiaztagiria edo Europar Batasuneko ziurtagiria aurkeztu. Horrez gain, kontratua egikaritzeko ardura izango duten langileen izenak eta lan-kualifikazioa ere adierazi beharko dituzte proposamenek. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da adjudikaziodunak ezin izango dituela pertsona horiek aldatu administrazio honek aldez aurretik horretarako baimena eman gabe. Hori zuzenean egiaztatuko da, nahiz eta lizitatzaileek klausula honi dagokion erregistro ofizialen baten egiaztagiria edo Europar Batasuneko ziurtagiria aurkeztu.	para este contrato concreto serán los siguientes - **Volumen anual de negocios** de referido al año de mayor volumen de negocio de los tres últimos concluidos deberá ser al menos de 23.500,00 €. - Una **relación de los principales servicios o trabajos** efectuados en los tres últimos años, de igual o similar naturaleza que los que constituyen el objeto del contrato, cuyo importe anual acumulado en el año de mayor ejecución sea igual o superior a 10.500,00 euros. La acreditación de la solvencia se complementará, además, con la obligación de adscribir a la ejecución del contrato los medios personales y/o materiales suficientes, que los licitadores especifiquen en sus ofertas. Se consideran suficientes los señalados, a este respecto, en el pliego de prescripciones técnicas. La adscripción de estos medios al contrato tendrá carácter de obligación contractual esencial, por lo que, al amparo de lo previsto en el art. 76.2 de la LCSP, su incumplimiento podrá ser considerado causa de resolución del mismo a los efectos señalados en el artículo 211.1.f). Esta circunstancia se acreditará directamente, aun cuando los licitadores aporten la certificación de algún Registro Oficial o la certificación comunitaria referidas en esta misma cláusula. Las proposiciones deberán especificar, además, los nombres y la cualificación profesional del personal responsable de la ejecución del contrato. A este respecto se señala que el adjudicatario no podrá sustituir a estas personas sin el previo consentimiento de esta Administración. Esta circunstancia se acreditará directamente, aun cuando los licitadores aporten la certificación de algún Registro Oficial o la certificación comunitaria referidas en esta misma cláusula. Si la documentación presentada tras el requerimiento referido en este apartado,

Apartatu honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioak zuzentzeko moduko akatsik baldin badu, hiru egun naturaleko epea emango zaio hura zuzentzeko; lizitatzaileari zuzenean jakinaraziko zaio, eta udalaren kontratatzaile-profilean iragarriko da. **3. ERREKERIMENDUA BETE EZEAN** Horretarako emandako epean adjudikaziodun izateko proposatutako hautagaiak ez baditu aurkeztu behin betiko bermea eta eskatu zaizkion gainerako dokumentuak, puntuazio onenetan hurrena duen hautagaiaren aldeko adjudikazio-proposamena egingo da, eta dagokion epea emango zaio behin betiko berme hori jar dezan.	adoleciese de defectos subsanables, se concederá un plazo de tres días naturales para su subsanación, comunicándolo directamente al licitador, y anunciándose en el perfil de contratante del Ayuntamiento. **3. EN CASO DE INCUMPLIMIENTO DEL REQUERIMIENTO** En caso de que en el plazo otorgado al efecto el candidato propuesto como adjudicatario no presente la garantía definitiva ni el resto de documentos, se efectuará propuesta de adjudicación a favor del siguiente candidato en puntuación, otorgándole el correspondiente plazo para constituir la citada garantía definitiva.
18. ADJUDIKATU ETA FORMALIZATZEA Gehienez bost egun naturaleko epean Kontu-hartzailetzak gastu-konpromisoa fiskalizatu ondoren, 159.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz, kontratazio-organoak kontratuaren adjudikazioa ebatziko du, lehenengo sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean, SPKLren 150.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz. Lizitatzaile guztiei emango zaie adjudikazioaren berri, eta erakundearen kontratatzaile-profilean argitaratuko da. Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-dokumentu baten bidez formalizatuta burutuko da kontratua; dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake esleipendunak, eta, orduan, beraren kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak. Adjudikazio-jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezin izango baita 15 egun baino gehiagokoa izan, adjudikaziodunak administrazio honetara jo	**18. ADJUDICACION Y FORMALIZACION** Previa fiscalización del compromiso del gasto por la Intervención en un plazo no superior a cinco días naturales, tal como señala el artículo 159.4, el órgano de contratación acordará la adjudicación del contrato, dentro de los cinco días hábiles siguientes a la recepción de la documentación requerida al primer clasificado, en aplicación de lo preceptuado por el artículo 150.3 de la LCSP. La adjudicación será notificada a todos los licitadores y se publicará en el perfil de contratante de esta Institución. El contrato se perfeccionará mediante su formalización en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación, constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público. No obstante, la adjudicataria podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos. En el plazo que se señale en la notificación de la adjudicación, que no podrá exceder de 15 días hábiles, el adjudicatario deberá comparecer en esta

behar du kontratua administrazio-dokumentu batean formalizatzeko.	Administración para formalizar el contrato en documento administrativo.
19. KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat atzematen badu kontratua prestatzeko arauei edo adjudikazio-prozedura erregulatzen duten arauei dagokienez. Kontratua ez egiteko erabakia hartzekotan edo prozeduran atzera egitekotan, kontratua formalizatu aurretik egin behar da, betiere aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.	**19. DECISIÓN DE NO CELEBRAR EL CONTRATO Y DESISTIMIENTO DEL PROCEDIMIENTO** De acuerdo con lo previsto en el artículo 152 de la LCSP, el órgano de contratación, por razones de interés público debidamente justificadas, podrá adoptar la decisión de no adjudicar o celebrar el contrato. También podrá desistir del procedimiento, cuando aprecie una infracción no subsanable de las normas de preparación del contrato o de las normas reguladoras del procedimiento de adjudicación. Tanto la decisión de no celebrar el contrato como el desistimiento del procedimiento deberán llevarse a cabo antes de la formalización del contrato, y de acuerdo con los requisitos establecidos en el referido artículo.
III. KONTRATUA EGIKARITZEA	**III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
20. KONTRATUA EGIKARITZEAREN ARAUBIDE OROKORRA Esleipendunaren gain eta galorde joango da kontratuaren egikaritzea, agiri honetan jasotako klausulei eta, hala badagokio, espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoei jarraituz. Administrazioak lanak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu, eta ahalmen horiek idatziz zein ahoz erabili ahal izango ditu. Esleipendunari edo haren agindupeko pertsonaren bati egotz dakiokeen egintza edo ez-egite baten ondorioz arriskuan jartzen bada kontratua egokiro egikaritzea, administrazioak agindu ahal izango du beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela kontratuaren egikaritze egokia lortzeko edo berrezartzeko. SPKLren 202.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau egikaritzeko honako egikaritze-baldintza berezi hauek eskatuko dira (gizartearen, lanaren, etikaren edo ingurumenaren arlokoak zein bestelakoak):	**20. RÉGIMEN GENERAL DE LA EJECUCION DEL CONTRATO** El contrato se ejecutará a riesgo y ventura de la adjudicataria; con sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego y, en su caso, a las especificaciones técnicas unidas al expediente; y bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente. Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo. De acuerdo con lo previsto en el artículo 202.1 de la LCSP, para la ejecución de este contrato se exigirán las siguientes condiciones especiales de ejecución de carácter social, laboral, ético, medioambiental o de otro tipo:

20.1 Datuen babesa Esleipendunak datuen babesaren arloko araudi nazionala eta Europar Batasunekoa bete beharko ditu nahitaez, kontratuan erabiliko diren datu pertsonalei dagokienez.	**20.1 Protección de datos** La obligación de la adjudicataria de someterse a la normativa nacional y de la Unión Europea en materia de protección de datos, en cuanto a los de carácter personal que vayan a ser utilizados en el contrato.
20.2 Hizkuntza irizpideak Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua. Arau horien artean daude, besteak beste, Orioko Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko udal-ordenantza eta erabilera-planaren baitan Orioko Udalak onartutako hizkuntza-irizpideak. 9/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa arautzen duenak, 13. 1. b) artikuluan, zehazten da: k*ontratazio-prozeduraren objektua baldin bada herritarrei zuzendutako prestazio bat edo hura gauzatzean herritarrekin harreman zuzena ezartzen bada, herritarrek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean emango zaie arreta, eta, gainera, herritar hartzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko moduko baldintzetan emango da prestazioa.* Enpresa adjudikaziodunak Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; era berean, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harreman guztiak administrazioaren lan-hizkuntzan izango dira; hau da, euskaraz. Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta, zerbitzua emango duten enpresa adjudikazioduneko langileek Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun-maila izan beharko dute. Baldintza hori berdin aplikatuko zaie zerbitzurako egiten diren lan-kontratu berri	**20.2 Criterios lingüísticos** Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6° y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre las que están la ordenanza municipal para la normalización del uso del euskera y los criterios lingüísticos aprobados por el Ayuntamiento de Orio en el marco del plan de uso del euskera. El DECRETO 9/2024, de 22 de febrero, por el que se regula el uso del euskera en el Sector Público Vasco, en el artículo 13 1. b) se especifica que e*n el caso de que el procedimiento de contratación tenga por objeto una prestación dirigida o en cuya ejecución se establezca una relación directa con la ciudadanía, los ciudadanos y ciudadanas serán atendidos en la lengua oficial que elijan y, además, la prestación se ejecutará en condiciones que garanticen los derechos lingüísticos de los/las ciudadanos y ciudadanas destinatarias de la misma..* La empresa adjudicataria actuará de conformidad con las normas lingüísticas del Ayuntamiento en todos los cometidos objeto del contrato. Asimismo, todas las relaciones tanto verbales como escritas de la empresa con la administración serán en la lengua de trabajo de ésta última; es decir, en euskara. Las características específicas de la prestación objeto del contrato obligan a que el personal adscrito al servicio deberá estar en posesión del nivel de competencia C1 del Marco Europeo de Referencia. Dicha condición será aplicable también a las nuevas

guztiei. Hizkuntza-baldintzen betetze-mailaren jarraipena: Sektore Publikoko Kontratuen Legeari (SPKLT) jarraiki: – Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu. – Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratu-arduradunak, berariaz prestatutako jarraipen-euskarriak erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko. Klausula honetan aurreikusitako baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea, aipatutako legearen 313 artikuluan xedatutakoaren arabera. **20.3 Berdintasuna** Enpresa adjudikaziodunak, kontratua gauzatzean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko duten neurriak ezarri beharko ditu arlo hauetan guztietan: enpleguaren eskuragarritasunean, langileen sailkapenean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanegunaren iraupen eta antolamenduan, eta, oro har, kontratu honen gauzatzeari lotuta dauden langileei bizimodu pertsonala, familiarra eta lana uztartzen lagunduk dieten alderdi guztietan, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriari buruzkoak, xedatzen duena betez.	contrataciones que pudieran realizarse para la prestación del servicio. Seguimiento del grado de cumplimiento de los requerimientos lingüísticos: De conformidad con la Ley de Contratos del Sector Público: – El/la responsable del contrato inspeccionará el cumplimiento del contrato, hará seguimiento de la correcta observancia de los requerimientos lingüísticos, y adoptará las decisiones y dictará las instrucciones necesarias a tal fin. – El/la responsable del contrato realizará la inspección no solo a su finalización, sino de modo continuado, mediante soportes de seguimiento específicos, que permitan corregir los errores que se detecten. Los requerimientos lingüísticos que se recogen en los siguientes pliegos de condiciones constituyen una obligación esencial del contrato a los efectos de la Ley de Contratos del Sector Público, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de conformidad con el artículo 313 de la citada ley. **20.3 Igualdad** La empresa adjudicataria, en la ejecución del contrato, deberá establecer medidas que garanticen la igualdad de mujeres y hombres en el acceso al empleo, clasificación personal, promoción, permanencia, formación, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada, así como aquellas que favorezcan la conciliación de la vida personal, familiar y laboral del personal adscrito a la ejecución del contrato, conforme establece la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

Hizkera ez-sexista erabili beharko du enpresa adjudikaziodunak bere agiri guztietan, publizitatean, irudietan, edota kontratua gauzatzeko kariaz sortzen den material orotan; eta emakumea baztertzen duen irudi oro eta estereotipo sexista oro saihestu beharko du; horrez gain, berdintasun-balioekin, presentzia orekatuarekin, aniztasunarekin, erantzukidetasunarekin eta genero- eta identitate-pluraltasunarekin lotutako irudia sustatuko du. Sexu-jazarpena eta lanean sexu arrazoiengatik inor jazartzea prebenitzeko neurriak hartzen direla bermatu behar du enpresa edo erakunde adjudikaziodunak. **20.4 Lan-arloa, gizarte-segurantza eta laneko segurtasun eta osasuna.** Plegu honen 21. atalean adierazitako betebeharrak. Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebeharra dira; horrenbestez, SPKLren 201 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jo ahal izango da SPKLren 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako. Zerbitzu-kontratu honek, jabetza intelektual edo industrialeko eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea izanik xede, berekin dakar administrazio kontratatzaileari lagatzea eskubide hori. Baldintza hori funtsezko kontratu-betebeharra da; horrenbestez, SPKLren 201 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jo ahal izango da SPKLren 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.	La empresa adjudicataria deberá utilizar un lenguaje no sexista en toda su documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato, y deberá evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género. La empresa o entidad adjudicataria garantizará la adopción de medidas para prevenir el acoso sexual y el acoso por razón de sexo en el trabajo **20.4 Materia laboral, seguridad social y de seguridad y salud en el trabajo.** Las obligaciones señaladas en el apartado 21 del presente pliego. Las citadas condiciones tienen el carácter de obligación contractual esencial, por lo que, al amparo de lo previsto en el artículo 201 de la LCSP, su incumplimiento podrá ser considerado causa de resolución del contrato a los efectos señalados en el artículo 211.1.f) de la citada Ley. El presente contrato de servicios, que tiene por objeto el desarrollo y la puesta a disposición de productos protegidos por un derecho de propiedad intelectual o industrial, llevará aparejada la cesión de este a la Administración contratante. Esta condición también tiene el carácter de obligación contractual esencial, por lo que, al amparo de lo previsto en el artículo 201 de la LCSP, su incumplimiento podrá ser considerado causa de resolución del contrato a los efectos señalados en el artículo 211.1.f) de la citada Ley.
21. LANEKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEKO BETEBEHARRAK	**21. OBLIGACIONES EN MATERIA LABORAL, SEGURIDAD SOCIAL Y DE SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO**

Enpresa kontratistak bete egin beharko ditu indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapen guztiak, lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean daudenak. Eta, kontratuak indarrean dirauen bitartean, kontratuaren adjudikaziodunak egunean eduki beharko ditu bere langileen soldatekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak. Kontratua betetzeko aldi osoan zehar, enpresa kontratistak obligazioa izango du lanaldiari eta soldatari dagozkion urteko lan baldintzak, eskaintza aurkezten den unean ezarri beharrekoa den hitzarmen kolektiboaren arabera, unean-unean kontratuari atxikitako langileei dagozkienak, edo hala badagokio, lan hitzarmena hobetzeko asmotan enpresaren eta langileen artean sinatutako itunak, bere kabuz eta alde bakarreko erabakiaren bitartez ez murrizteko, salbu eta enpresaren eta langileen ordezkarien artean horretarako berariazko akordioa hartzen ez bada. Klausula honetan ezarritako betebeharrak kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa hartuko dira, eta horiek bete ezean, kontratua suntsitu ahal izango da. Kontratuaren parte diren exekuzio baldintza berezi guztiak berdin-berdin eskatuko zaizkie kontratuaren exekuzioan parte hartuko duten azpi kontratista guztiei.	La empresa contratista deberá cumplir todas las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes en materia laboral, seguridad social y seguridad y salud en el trabajo. Asimismo, la adjudicataria del contrato, durante todo el período de su vigencia, deberá encontrarse al corriente en las obligaciones salariales con sus personas trabajadoras y con la Seguridad Social. Durante todo el período de ejecución del contrato, la empresa contratista está obligada a no minorar unilateralmente las condiciones de trabajo que, en materia de jornada y salario, y en términos anualizados, correspondan en cada momento a las personas trabajadoras adscritas al contrato en función del convenio colectivo que resulte de aplicación al presentarse la oferta o, en su caso, de los pactos suscritos entre la empresa y las personas trabajadoras en lo que mejoren el convenio, salvo acuerdo explícito entre empresa y la representación de los/as trabajadores/as. Las obligaciones impuestas en esta cláusula tienen la consideración de condición especial de ejecución del contrato y su incumplimiento podrá dar lugar a la resolución del contrato. Todas las condiciones especiales de ejecución que forman parte del contrato serán exigidas igualmente a todos las subcontratistas que participen en la ejecución del mismo..
22. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA EGIKARITZEN DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI EGITEN ZAIZKIEN KALTEAK DIRELA ETA SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, esleipendunak izango du kontratua egikaritzeko egin beharko diren eragiketek ekarritako kalte eta galeren erantzukizuna.	**22. RESPONSABILIDAD DE LA ADJUDICATARIA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO.** De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 196 de la LCSP, la adjudicataria será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato.
23. KONTRATUAREN ALDAKETAK Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, honako kasu eta	**23. MODIFICACIONES DEL CONTRATO** La Administración podrá modificar el contrato por razones de interés público en los supuestos, en las

baldintza hauetan eta eragin-esparru eta muga hauekin: Urtean 100 ordu gehigarriko poltsa bat aurreikusten da, proiektuaren martxak hala eskatzen badu erabiliko dena. Dena den, kontratua aldatu ahal izango da, halaber, SPKLren 205. artikuluan esanbidez adierazitako baldintzetakoren bat betetzen bada, lege horren 203., 206. eta 207. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, baldin eta horrekin aldatzen ez badira lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak. Gorago adierazitako aldaketa horiek bete beharrekoak izango dira esleipendunarentzat.	condiciones y con el alcance y límites que a continuación se señalan: Se prevé una bolsa anual de hasta 100 horas adicionales, que se utilizarán si la marcha del proyecto así lo requiriera. No obstante, el contrato también podrá modificarse cuando concurra alguna de las circunstancias previstas expresamente en el artículo 205 de la LCSP, de conformidad con lo preceptuado en los artículos 203, 206 y 207 de la misma Ley y siempre que con ello no se alteren las condiciones esenciales de la licitación y adjudicación. Las posibles modificaciones referidas anteriormente serán obligatorias para la adjudicataria.
24. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA Kontratazio honek izaera pertsonaleko datuak eskuratu beharra eragiten badu, SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarritik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu esleipendunak, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta hura garatzeko araudiarekin lotuta.	**24. PROTECCION DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL** En el caso de que la presente contratación implique el acceso a datos de carácter personal, la adjudicataria deberá cumplir las obligaciones derivadas de la Disposición Adicional Vigésima Quinta de la LCSP, en relación con la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y su normativa de desarrollo.
25. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERMEALDIA Kontratuaren xede den prestazioa amaitu eta gehienez hilabeteko epean, haren harrera-ekitaldi formal eta positiboa gauzatuko da. Kontratu honen izaera kontuan hartuta, ez da bermealdirik ezartzen.	**25. RECEPCIÓN DE LA PRESTACIÓN Y PLAZO DE GARANTÍA** En el plazo máximo de un mes desde que finalice la prestación objeto del contrato se producirá el acto formal y positivo de recepción de la misma. Dada la naturaleza de este contrato no se prevé el establecimiento de un plazo de garantía.
26. KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK ESLEIPENDUNARI EZARRIKO ZAIZKION ZIGORRAK **A. Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzea**	**26. PENALIDADES AL CONTRATISTA POR INCUMPLIMIENTO** **A. Incumplimiento de los plazos de ejecución del contrato**

Esleipenduna, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzen bada kontratua egikaritzeko epean (epe osoa zein, halakorik bada, epe partzialak), administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea (eta adjudikaziodunak bermea galdu), edo honako zigor hau ezartzea: zerbitzua behar bezala ematen berandutzen den eguneko 0,60 euro kontratuaren prezioko 1.000 euroko (BEZa aparte). Berandutzeagatik ezartzen diren zigorren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera heltzen den bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, edo, bestela, kontratua egikaritzen jarrai dadin agintzeko, zigor gehiago ezarrita.	Si la adjudicataria, por causas imputables al mismo, hubiese incurrido en demora respecto del cumplimiento del plazo de ejecución del contrato, tanto del plazo total como, en su caso, de los plazos parciales, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del mismo, con pérdida de la garantía, o por la imposición de penalidades en la proporción de 0,60 euros diarios por cada 1.000 del precio del contrato, IVA excluido. Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5 por 100 del precio del contrato, el órgano de contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.
B. Prestazioen egikaritze partzialaren ez betetzea Esleipendunak ez badu betetzen kontratuan zehaztutako prestazioen egikaritze partziala, eta horren errua berari egozten ahal bazaio, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, edo, bestela, kontratuaren prezio osoaren % 10en baliokidea den zigorra ezartzea.	**B. Incumplimiento de la ejecución parcial de las prestaciones** Cuando la adjudicataria, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido la ejecución parcial de las prestaciones definidas en el contrato, la Administración podrá optar, indistintamente, por su resolución o por la imposición de una penalidad equivalente al 10 por 100 del precio total del contrato.
C. Prestazioa oker gauzatzea Prestazioa oker gauzatzen bada, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu prezioaren % 50. Kontzeptu honetan sartzen dira baita ere, plegu honetan jasotako beste edozein baldintza berezi ez betetzea edo behar bezala ez betetzea, baldin eta hurrengo apartatuetan adierazitakoez bestelakoak badira. Era berean, atal honetan sartzen dira eskaintzak baloratzeko irizpide gisa kontuan hartutako	**C. Cumplimiento defectuoso** En caso de cumplimiento defectuoso de la prestación, la Administración podrá imponer penalidades, por cuantía, cada una de ellas, no superior al 10 por ciento del precio del contrato, IVA excluido, y sin que el total de las mismas pueda superar el 50 por cien del precio del mismo Se incluyen también en este concepto el incumplimiento o cumplimiento defectuoso de cualesquiera otras condiciones especiales de ejecución recogidas en el presente pliego que sean distintas de las reflejadas en los apartados siguientes. Igualmente, se incluyen en este apartado, los incumplimientos o cumplimiento defectuoso que

alderdiei eragiten dieten ez-betetzeak edo betetze akastunak. **D. Ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak ez betetzea** Esleipendunak ez baditu betetzen ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak, batez ere soldatak ordaintzen behin eta berriro atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza okerragoak doloz eta era larrian aplikatzen baditu, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu prezioaren % 50. **E. Azpikontratistekiko betebeharrak ez betetzea** SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa gorabehera, esleipendunak azpikontratistekin dituen betebeharrak betetzen ez baditu, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratuaren prezioaren % 50. **F. Langileak subrogatzeko betebeharrak ez betetzea** Esleipendunak ez baditu betetzen kontratuaren xede den zerbitzuak ukitutako langileak subrogatzearen arloan dituen betebeharrak SPKLren 130.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako	afecten a aspectos tenidos en cuenta como criterio de valoración de las ofertas. **D. Incumplimiento de las obligaciones en materia medioambiental, social o laboral** En caso de incumplimiento de las obligaciones de la adjudicataria en materia medioambiental, social o laboral, en especial los retrasos reiterados en el pago de los salarios o la aplicación de condiciones salariales inferiores a las derivadas de los convenios colectivos que sea grave y dolosa, la Administración, en aplicación de lo previsto en el artículo 201 de la LCSP, podrá imponer penalidades, por cuantía, cada una de ellas, no superior al 10 por ciento del precio del contrato, IVA excluido, y sin que el total de las mismas pueda superar el 50 por cien del precio del mismo. **E. Incumplimiento de las obligaciones con los subcontratistas** Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 217 de la LCSP, en caso de incumplimiento dla adjudicataria de sus obligaciones con los subcontratistas, la Administración podrá imponer penalidades, por cuantía, cada una de ellas, no superior al 10 por ciento del precio del contrato, IVA excluido, y sin que el total de las mismas pueda superar el 50 por cien del precio del mismo. **F. Incumplimiento de las obligaciones de subrogación de trabajadores** En caso de incumplimiento, por la adjudicataria, de sus obligaciones en materia de subrogación de los trabajadores afectados por el servicio objeto del contrato, la Administración, en aplicación de lo previsto en el artículo 130.4 de la LCSP, podrá imponer penalidades, por cuantía, cada una de ellas, no superior al 10 por ciento del precio del contrato, IVA excluido, y sin que el total de las mismas pueda superar el 50 por cien del precio del mismo.

zenbatekoak ezin izango du gainditu prezioaren % 50.	
27. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK Zerbitzu-kontratua suntsiarazteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan daude ezarrita.	**27. CAUSAS DE RESOLUCION DEL CONTRATO** Constituyen causas de resolución del contrato de servicios las establecidas en los artículos 211 y 313 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
28. KONTRATUAREN LAGAPENA Kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga diezazkioke esleipendunak, baldin eta: a) lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak erabakigarriak izan ez badira kontratua hari adjudikatzeko, b) merkatuan lehiaketa benetan murrizterik ez badakar lagapenak, c) esleipendunaren ezaugarrien aldaketa nabarmenik ez badakar lagapenak, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementua diren kasuetan, d) eta SPKLren 214.2 artikuluan jasotako baldintza eta betekizunekin bat badator.	**28. CESIÓN DEL CONTRATO** Los derechos y obligaciones dimanantes del contrato podrán ser cedidos por la adjudicataria a un tercero siempre que: a) las cualidades técnicas o personales del cedente no hayan sido razón determinante de la adjudicación del contrato, b) que de la cesión no resulte una restricción efectiva de la competencia en el mercado, c) que la cesión no suponga una alteración sustancial de las características dla adjudicataria si estas constituyen un elemento esencial del contrato d) y de acuerdo con los requisitos y exigencias recogidos en el artículo 214.2 de la LCSP.
29. AZPIKONTRATAZIOA Esleipendunak prestazioaren gauzatze partziala azpikontratatu dezake hirugarren batzuekin. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu azpikontratazio horrek.	**29. SUBCONTRATACIÓN** La adjudicataria podrá subcontratar con terceros la realización parcial de la prestación. En todo caso, dicha subcontratación, estará sometida al cumplimiento de los requisitos de los artículos 215 y 216 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA	**IV.- NATURALEZA, REGIMEN JURIDICO Y JURISDICCION COMPETENTE**
30. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA	**30. NATURALEZA Y REGIMEN JURIDICO DEL CONTRATO**

Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratua administrazio-kontratua izango da, eta dokumentu honek eta berari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Kontratuan xedatuta ez dagoen guztian, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituko zaio, eta, lege horren kontra ez doan guztian, honako hauetan xedatutakoari: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (zeinak partez garatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikatzekoak diren kasuan kasuko gainerako arauak. Administrazio-baldintza partikularren agiri hau eta espedienteari atxikitako gainerako agiriak bat etorri ezean, agiri honetan xedatutakoak izango du lehentasuna.	El contrato que en base a este pliego se realice tendrá carácter administrativo, rigiéndose por el presente pliego y el resto de la documentación técnica que lo acompaña. En todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público y, en todo lo que no se oponga a la citada Ley, en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre; en el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público; y en las demás normas que, en su caso, sean de aplicación a la contratación de las Administraciones Públicas. En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este Pliego.
31. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK Administrazioari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua egikaritzeko dauden zalantzak argitzea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz esleipendunari egotz dakiokeen erantzukizuna zehaztea, kontratuaren egikaritzea etetea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea; betiere SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta haietan jasotako baldintza eta ondorioak betez.	**31. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACION** Corresponden a la Administración las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable al contratista a raíz de la ejecución del contrato, suspender la ejecución del mismo, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la LCSP, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
32. JURISDIKZIO ESKUDUNA Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu; administrazioaren bideari amaiera emango diote organoaren erabakiek, eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan. Horrek ez du kentzen, hala	**32. JURISDICCION COMPETENTE** Las cuestiones controvertidas que puedan derivarse del presente contrato serán resueltas por el órgano de contratación, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y podrán ser impugnados directamente ante la jurisdicción contencioso administrativa, sin perjuicio de que, en su caso,

badagokio, kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jarri ahal izatea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60. artikulura artekoek araututakoaren arabera, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako edozein errekurtso. .....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n.	proceda la interposición del recurso especial en materia de contratación regulado por los artículos 44 a 60 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, o cualquiera de los regulados en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas . En....., a.....de.....de 20.....

("A" ARTXIBOAN TXERTATZEKOA)

I. ERANSKINA. KONTRATUAK EGITEKO ESKAKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO ADIERAZPEN-EREDUA

Izen-abizenak: .....
Helbidea: .....
Posta-kodea .....
NAN-zenbakia: .....
Telefonoa: .....
Helbide elektronikoa: .....
Gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa dudala, neure izenean, edo honako honen ordezkari:
Izen-abizenak: .....
Helbidea: .....
Posta-kodea .....
NAN-zenbakia edo IFK-zenbakia (pertsona fisikoa edo juridikoa den): .....
Telefonoa: .....

Jakin dut .....k prozedura abiarazi duela ..... kontratatzeko, eta, nire erantzukizunpean,

ADIERAZTEN DUT

I. Aipatutako sozietateak, haren administratzaileek eta legezko ordezkariek, eta halaber sinatzaileak, ez dute kontratatzeko debeku eta bateraezintasunik bat ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan jasotakoetatik.

II. Sozietateak beterik ditu indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak.

III. Sozietatea alta emanda dago Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren dagokion epigrafean.

IV.- Sozietateak ez du administrazio kontratatzailearekiko zerga-zorrik epe exekutiboan, edo bermatuak ditu.

V. Sozietateak betetzen ditu kontratu hau lortzeko administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritako eskakizun guzti-guztiak, bereziki 12. eta 17. klausuletan ezarritakoak.

VI. Sozietateak konpromisoa hartzen duela kontratua gauzatzeko plegu teknikoetan adierazitako giza baliabideak erabiltzeko edo atxikitzeko. Hautatua izanez gero, justifikazio-agiriak aurkeztuko ditu horretarako errekerimendua jasotzen duenean.

VII.- Komunikazioetarako posta elektronikoa: _____

.....(e)n, ...(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura

(A INCLUIR EN EL ARCHIVO "A")

ANEXO I. MODELO DE DECLARACIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE REQUISITOS PARA CONTRATAR

D/Dª ....., con domicilio en ....., CP....., D.N.I. nº....., teléfono.....e-mail.....,

en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de....., con domicilio en.....,

CP....., teléfono....., y D.N.I. o C.I.F., según se trate de persona física o jurídica, nº.....), enterado del procedimiento convocado por ....., para la contratación de ....., bajo mi responsabilidad,

DECLARO

I. Que la citada sociedad, sus administradores y representantes legales, así como el firmante no se hallan comprendidos en causa alguna de prohibición e incompatibilidad para contratar de las señaladas en el artículo 71 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

II. Que la citada sociedad se halla al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

III. Que la citada sociedad está dada de alta en el epígrafe correspondiente del Impuesto de Actividades Económicas.

IV. Que la citada sociedad no tiene deudas tributarias en periodo ejecutivo de pago con la Administración contratante, o las tiene garantizadas.

V. Que la citada sociedad cumple con todos y cada uno de los requisitos que, para acceder a este contrato, establece el pliego de cláusulas administrativas particulares y, especialmente, los señalados en las cláusulas 12 y 17.

VI. Que la sociedad se compromete a dedicar o a adscribir a la ejecución del contrato los medios personales señalados en los pliegos técnicos. de resultar seleccionada, aportará la documentación justificativa cuando reciba el requerimiento al efecto.

VII.- Correo electrónico para comunicaciones: _____

En....., a.....de.....de .....

Firma

("A" ARTXIBOAN TXERTATZEKOA)

II. ERANSKINA. DESGAITASUN KUOTAK ETA BERDINTSUN PLANA BETETZEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA ESKAINTZAK MODU INDEPENDENTEAN PRESTATU IZANAREN ADIERAZPENA.

IDENTIFIKAZIO DATUAK		
1. abizena, 2. abizena, izena		**NAN-IFZ**
	Norberaren izenean	
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean	
Ordezkatutako enpresaren sozietate izena:		
Ordezkatutako enpresaren IFK:		
Enpresaren langile kopurua:		

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK	
Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**

<u>ADIERAZTEN DU</u>

Nik ordezkatzen dudan enpresak (markatu X batez)

BAI ditu 50 langile edo gehiago.	
EZ ditu 50 langile edo gehiago.	

50 edo langile gehiago baldin baditu, honako adierazpen hau egiten dut enpresari buruz:

LEHENENGOA.- Langileen % 2 gutxienez desgaitasuna duten langileak izateko baldintza betetzen duela.

BIGARRENA.- Dagokion Lan Erregistroan Berdintasun Plana inskribatuta duela.

Bi alderdi horiek horretarako egiten den errekerimenduan egiaztatuko dira.

SINADURA

(A INCLUIR EN EL ARCHIVO "A")

ANEXO II. DECLARACIÓN RESPONSABLE PARA EL CUMPLIMIENTO DE LAS CUOTAS DE DISCAPACIDAD Y EL PLAN DE IGUALDAD PREPARACIÓN DE LA OFERTA DE MANERA INDEPENDIENTE

DATOS DE IDENTIFICACIÓN	
Primer apellido, segundo apellidos y nombre	**DNI-CIF**
☐ **En su propio nombre**	
☐ **En nombre de la empresa que representa**	
Nombre de la sociedad representada	
Nº CIF de la empresa representada	
N.º de trabajadores de la empresa	

DATOS DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN	
Nombre del contrato	**Código de referencia**

DECLARA

La empresa a la que represento (marque con una X):

SI tiene 50 o más trabajadores/as	
NO tiene 50 o más trabajadores/as.	

S la empresa tiene 50 o más trabajadores/as hago la siguiente declaración sobre la empresa:

PRIMERO: -Que cumple el requisito de que al menos el 2% de sus empleados/as sean trabajadores/as con discapacidad.

SEGUNDO –Que cuenta con Plan de Igualdad inscrito en el Registro Laboral correspondiente.

Ambos aspectos serán acreditados en el requerimiento que se haga al efecto.

FIRMA

(B artxiboan txertatzeko)

III. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKORAKO ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO BESTE ELEMENTUETARAKO EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK		
1. abizena, 2. abizena, izena		**NAN-IFZ**
	Norberaren izenean	
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean	
Ordezkatuaren sozietate izena:		
Ordezkatuaren IFK:		

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK	
Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**

Jakinda zeintzuk diren kontratazio espedienteari dagokionez eskatzen diren baldintzak eta beharkizunak, proposatzen d(it)u honako prezio hau(ek) eta, hala badagokio, formula bidez ebaluagarriak diren gainerako elementuen eskaintzak:

ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATU BEHARREKO BESTE ALDERDI BATZUK

2.1 Eskaintza ekonomikoa (25 puntu):

Orduko prezioa:	**LIZITAZIO PREZIOA**	**ESKAINITAKO PREZIOA**
Oinarria	**57,10**	
BEZ (%21)	**11,99**	
GUZTIRA	**69,09**	

275 ORDU	**LIZITAZIO PREZIOA**	**ESKAINITAKO PREZIOA**	
OINARRIZKO PREZIOA	**15.702,50**	**OINARRIZKO PREZIOA**	

%21 BEZ	**3.297,53**	**%____BEZ**	
GUZTIRA	**19.000,03**	**GUZTIRA**	

FORMULA BIDEZ BALORATU BEHARREKO BESTE ALDERDI BATZUK

2.2 Egiaztatutako esperientzia (40 puntu)

Ziurtagiriak erantsi behar dira.

2.3 Berdintasun irizpideak (10 puntu)

Konpromisoa hartzen dut, kontratua gauzatzeko atxiki beharreko langileek honako prestakuntza jasoko dutela urtean: _____ ordu (6 edo 3 ordu).

(A INCLUIR EN EL SOBRE B)

ANEXO III. - MODELO DE OFERTA ECONÓMICA Y DE LOS OTROS ELEMENTOS DE LA OFERTA EVALUABLES MEDIANTE FÓRMULAS

DATOS DE IDENTIFICACIÓN		
1erapellido, 2º apellido, Nombre		**DNI-NIF**
	En nombre propio	
	En nombre de la empresa que represento	
Razón social de la representada:		
CIF de la representada:		

DATOS DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN	
Nombre del contrato	**Código de referencia**

Enterado de las condiciones y requisitos que se exigen con relación al expediente de contratación indicado, propone el/los siguiente/s precio/s y, en su caso, las ofertas del resto de elementos evaluables

OTROS ELEMENTOS EVALUABLES MEDIANTE FORMULA

2.1 Oferta económica

Precio hora:	**LIZITAZIO PREZIOA**	**ESKAINITAKO PREZIOA**
Base	**57,10**	
IVA (%21)	**11,99**	
TOTAL	**69,09**	

275 HORAS	**PRECIO LICITACIÓN**	**PRECIO OFERTADDO**

PRECIO BASE	**15.702,50**	**PRECIO BASE**	
10 IVA%	**3.297,53**	**%_____IVA**	
TOTAL	**19.000,03**	**TOTAL**	

2.2 Experiencia acreditada (40 puntu)

Adjuntar certificados.

2.3 Igualdad de género

Me comprometo a que el personal adscrito a la ejecución del contrato recibirá una formación anual de _____ horas. (6 o 3 horas)

FIRMA